

## 4. GAIA: ESPAINIAKO ZUZENBIDE HISTORIKOA ETA TRANTSIZIOA

### 1. ESPAINIAR ESTATUKO HISTORIA KONSTITUZIONALAREN EZAUGARRIAK

- Kostituzionalismora goiz batu zen: Gizartean konstituzioa sortzeko sortu zen “giroa”.
- Ezegonkortasuna: 8 Konstituzio + proiektu batzuk: Batetik bestera aldatzen zen eta estatu kolpeen bitartez aldatzen zen konstituzioa, gehienak konstituzio kontserbadoreak izan ziren. Espainiak izan du konstituziorik gehien historian zehar. XIX eta XX.mendeetan zehar, aldaketa politiko eta konstituzional ugari.
- Izaera / eragin eratorria (salbuespena: kontsarbadoreak)
- Hausturaz ezarria, ez erreformaz.
- Gobernu era: monarkikoa (salbuespena: I. Errepublika (1873/02-1874/12))
- Botere judizial ahula
- Askatasun eta eskubideen berme ahula
- Zentralizazio formala eta ondoriozko nazionalismoaren agerpena. (2 Guda Karlista: 1833-1839 eta 1872-1876) Geroago iritsi zen Nazionalismoa

Konstituzioaren urtea	Subiranotasuna	Ideologia-mota	Aginteen arteko harremanak	Erreformatzeko era	Konstituzioaren autorea	Indarraldia
1812	Nazio	aurrerazale	Aginte banaketa onartzen du	Zurrun-zurruna	Gorte konstituziogileak	5-6 urte baina ez jarraian
1834ko Estatutua	Errege	kontserbadore	Ez dago aginte banaketarik	malgua	Errege, Dekretu beten bidez	3 urte
1837	Nazio	aurrerazale	Aginteen arteko lankidetzak	malgua	Gorte konstituziogileak	8 urte
1845	Errege eta Gorteak	kontserbadore	Ez dago aginte banaketarik	malgua	1837koaren erreforma	24 urte
1869	Nazio	aurrerazale	Aginteen banaketa	zurruna	Gorte konstituziogileak	4 urte
1876	Errege eta Gorteak	kontserbadore	Ez dago aginte banaketarik	malgua	Gorte konstituziogileak	47 urte
1931	Herri	aurrerazale	Aginteen arteko lankidetzak	zurruna	Gorte konstituziogileak	8 urte
Oinarrizko legeak 1938-67	Nazio (teorian) Estatuburua (praktikan)	kontserbadore	Aginte bakarra	Zurrun-zurrunak	Franco Jenerala	37 urte
Erreforma politikarako legea 1976						
1978	Herri -nazio espainiarra-	aurrerazale	Aginteen arteko lankidetzak	Zurrun-zurruna	Gorte konstituziogileak	

## 2. AROAK

### I. AINTZINAKO ERREGIMENETIK > ESTATU LIBERALERAKO TRANTSIZIOA (1808-33)

(1808: Baionako Estatutua: José Bonapartek emandako gutuna)

- **1812: Kadizeko Konstituzioa: (6 urte indarrean, 1820-1823, 1836-1837)**
  - Absolutismoaren kontra sortu zen (Fernando VII, 1814 itzuli zen)
  - Parlamentu unicamerala zuen
  - 3 printzipio:
    - Subirotasun nazionala: herria soberanoa da
    - Boterea banaketa: Gobernu, parlamentu eta epaileak.
      - Legegilea: gorteak erregearekin (15. art.).
      - Betearazlea: erregea (16. art.).
      - Eremu penal eta zibilean aplikatzea: epaileak.
    - Ordezkaritza: herritarrek.
      - Funtzioa ez eskubide.
      - Sufragio zentsitarioa.

### II. ARO ISABELDARRA (1834-1868): 3 konstituzio

- 1833: guda zibila - Karlistak (e. anaia) eta Liberalak (Isabel II e. alaba)
- Erregina gobernadora: Maria Kristina de Borbón alarguna. ("Guiri" hitzaren jatorria. "Giristinoak", laburtuta "giri"). Beldurra zieten kanpoko influentziei
- **1834ko Estatutu Erreala (Konstituzioa)**
  - Izaera kontserbadorea: Aurreko konstituzioko kontrako izaera
  - Gutuna zen
  - Monarkak organo batzuei boterea eman
  - Laburra eta osotasunik gabea: Soilik 50 artikulua.
  - Subiranotasun nazionalik ez: Erregeak + gortekin (soberanía compartida).
  - Botere banaketarik EZ
  - Sufragioa: murriztua

- **1837ko Konstituzioa**

- Izaera liberala
- Luzera ertainekoa. 77 artikulua.
- Eskubide + askatasunak eta botereen antolakuntza. Bermatzen hasten dira
- Ez zuen erreformatzeko mekanismorik. Konstituzio guztien izan behar izaten berez, eta ezin zenez aldatu, indarrez beste konstituzio bat ezartzen da
- Parlamentu bikamerala ezartzen zuen. Kongresua eta senatua.
  - Kongresukoak modu zuzenean hautatuak
  - Senatukoak erregeak hautatzen zituen, probintziak proposatzen zituzten zerrendetatik.
- Erregeak legeak betatzeko ahalmena zuen
- Eskubideen katalogo bat jasotzen zuen
- 8 urtez egon zen indarrean.
- LEHEN GUDA KARLISTA (1833-1839):
  - Autogobernua
  - Aduana Ebron
  - Ez zeuden behartuta gerrara joatera
  - Lurraren jabetza komunala: Edozein joan zitekeen meateetara burdina lortzera (Gallarta). Liberalak foru hauen kontra zeuden, jabetza pribatua nahi zuten eta foruak ematen zizkieten eskubideak oztopo ziren liberalentzat

- **1845eko Konstituzioa** (Gaietik aipatu du)

- Izaera: kontserbadorea
- 1844: Isabel erreginak gorteak inauguratzean, oroitarazi ziren hauen misioa konstituzioa erreformatzea zela
- Subiranotasun nazionala ezabatu (partekatutako subiranotasuna)
- 1856an ordezkaria izan behar zen baina Gorte Konstituziogileak desegin eta 1845ko konstituzioa indarrean jarri zen, Akta Osagarri batekin (Acta Adicional).

### III. SEIURTEKO IRAULTZAILEA (1868-1874)

- 1868: Iraultza liberala eta seiurteko demokratikoa
- Altxamendu militar aurrerakoa: Ez zen aldaketa baketsu bat izan
- Gorte Konstituziogileak deitu ziren eta 1869ko Konstituzioa onartu zuten
  
- **1869ko Konstituzioa**
  - Estatu demokratiko liberal baten saiakera
  - Konstituzionalismo liberal aurrerakoiaren partea
  - Eskubideak modu zabalean erregulatuz
  - Erljio askatasuna (libertad de cultos)
  - Sufragio unibertsal baina mediatoa, ez zuzena: ezin duzu zuzenean bozkatu, ordezkariak bidaltzen dituzu
  - Subiranotasun nazionala
  - (1873-1974). **I. Errepublikaren proklamazioa** + “konstituzio federalerako” proiektua => altsamendu militarra

### IV. BERREZARPENA (1874-1931): Faseak

- Alfonso XII-ren (Borboia) erregetza (1876-1885)
- Maria Cristina de Austria erreginaordearen (1886-1901)
- Alfontso XIII-ren erregetza (1902-1923).
- Primo de Riveraren diktadura (1923-1929)
- Urte batzuk deliberatzen eman eta gero, Canovas kontserbadoreak sustatuta, 1876ko Konstituzioa onartu zen.
  - Canovas alderdi Kontserbadorekoa
  - Sagasta alderdi liberalekoa.
  
- **1876ko Konstituzioa**
  - Liberal-kontserbadorea.
  - Gehien iraun duena espainiar konstituzionalismo liberalean. Zergatik? Bi alderdi nagusien arteko hitzarmenean
  - Monarkaren eta Gorteek adostua

- Erreformatzeko malgua da.
- Erregeak (inviolable) botere zabalak: Gorteak deitu eta desegiteko Botere exekutiboa zuen, armadaren buru.
- Sistema politiko bipartidista (Txandakatuz): ezkertiarak eta eskuindarrak txandakatuz
- Erlijio katolikoa ezartzen zuen Estatukoa bezala, eta erlijio askatasuna ezabatuz
- Legegile bikamerala:
  - **Kongresua:** sufragio murriztuaz hautaturik
  - **Senatua:** erregeak izendatua batzuk, hautatuak besteak...
- Canovas hil eta gero (1897) → ezegonkortasuna: diktadura ekarri zuen ondorio gisa
- Primo de Riverak jeneralak Estatu kolpea (1923): diktadura. Alfonso XIII onartua: exiliatu

## V. 1931KO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA

- Jabetza eskubidea, amnistia politika, gizarte eta inprenta delituentzat; hauteskunde legea moldatu zen.
- Egoera politikoa oso zaila: lurralde-antolaketa (diktadurak isildutakoa esaterako euskara debekatzea), eraldaketa militarra, nekazaritza-eraldaketa (eskubide asko eman zitzaizkien) → (Los santos inocentes filma) eta erlijio arazoa.
- 1933 hauteskundeak zentro-eskuinak irabazi. 1936 sartu zen indarrean Frente Popularrak irabazi.
- Prozesu konstituziogilea
  - Batzorde batek prestatutako proiektua
  - Eztabaida nagusiak: Aurreko konstituzioek ez zituzten hauek jorratu
    - Lurralde → erkidegoak (2.art.)
    - Gizarte
    - Erlijio gaiak → akondizionala
- **1931ko konstituzioa**
  - 1931ko abenduaren 9an onartu zen Konstituzioa

- Legegintza teknika egokia, luzera ertaina, eragina:
  - Weimarreko Konstituzioaren (1919) -parlamentu-sistema
  - Austriako Konstituzioarena (1920) jurisdikzio konstituzionalean.
  - Mexikoko Konstituzioaren eragina (Queretaro, 1917) ekonomia eta gizarte eskubideei dagokionez.
  
- **Ezaugarriak:**
  - Herri subiranotasuna; Sufragio orokorra.
  - Zuzeneko demokrazia
  - Estatu "Integrala": erregio eta udalerrien autonomian oinarritua. Gorte unikameralak.
  - Eskubideak eta bermeak: indibidualak eta kolektiboak + eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak
  - Estatuak ez du erlijio ofizialik
  - Konstituzioaren arau-maila
  - Konstituzio Bermeen Auzitegia

## VI. SISTEMA POLITIKO FRANKISTA

- Guda Zibilaren ostean osatutako erregimen politikoa.
- Ezaugarri nagusia: kaudillajea (caudillo=buruzagi).
- Franko jeneralak botere osoak zituen.
- Ez dago Konstituziorik, oinarrizko legeak genituen: Leyes Fundamentales: sistema politikoaren egitura, forma ordenatua (estatu buruzagi bat zegoen, gobernu bat zegoen, gorte bat zegoen...)
  
- **Sistema politikoaren egitura:**
  - Estatu buruzagitza: gobernuburua hautatzen zuen, legeak betatu zitezkeen, erreferenduma deitu...
  - Gobernua: Presidente, Ministro kontseilua eta bere batzorde delegatuek osatzen zuten.
  - Gorteak: Movimiento Nacional (alderdi bakarra); Organización sindical (bakarra); familia eta udalerrietako ordezkariak.

- Movimiento Nacional: erregimena mantentzen zuen alderdi bakarra.
- Oinarrizko eskubideen eta botere banaketaren ukapena. Errepresio basatia + Askatasunik eza.
- **Oinarrizko legeak (Leyes fundamentales):**
  - **1939**: Lanaren Forua: biritza ekonomiko-laborala arautzen: biritza ekonomikoa antolatzen zuten
  - **1942**: Gorte Espagnolaren legea, legeak prestatzeko ganbara
  - **1945**: Espagnolaren Forua: eskubide eta betebeharrak . Errekonozimendu formal hutsa, praktikan sis. autoritarioa
  - **1945**: Erreferendum legea: Nazioari galdetzea ahalbidetu, herritarrei galderak egiteko zen baina ez zen inoiz erabili.
  - **1947**: Estatu buruzagitzaren oinordetzarako legea, Espainia erresuma bezala konstituitu zuena, eta Francori estatu-buruzagitza ematen zion. Erreferenduz
  - **1958**: Mugimenduaren Oinarrizko Printzipioen legea, estatuburuak promulgatua Gorteetan
  - **1967**: Estatuko Lege Organikoa, aurreko lege batzuk aldatu eta konstituzio funtzioa (Erreferendum)

### 3. DIKTADURATIK EGUNGO SISTEMARA TRANTSIZIOA

- Frankismoa krisian: 40-50 hamarkadan gora egin zuen baina 60.hamarkadan krisi ekonomikoa gizarte aldaketa
- Dikotomia nagusi garaia zen eta erabaki bat hartu behar zen: erreforma ala haustura eta erreforma txikiak egitea erabaki zuten.
  - Halere bazegoen eskuinaren barruan jarraikortasunaren aldekoak.
- Franco: “Lo deajo todo atado y bien atado”.
- Horren aurretik, frankismoaren lehen urteetan Espainiar estatua ia ia autarkia bat izan zen
- Bi momentu: Trantsizio-aurrea (pretransición) eta trantsizioa bera

## **I. TRANTSIZIO-AURREA**

- Sistemaren barruan gauzatu → Prestakuntza
- 60 hamarkadan aldaketa ekonomikoak (emigrazioa asko sustatu zen Euskal Herrian, industria gunetara etortzen hasi zirelako. Denbora gutxian etxebizitza asko sortu behar izan zituzten jendea bizi ahal izateko), aktibazioa eta liberalizazioa.
  - Desarrollismoa
  - Gobernuan teknokratak
  - Turismoaren gorakada.
  - Herrietatik hirietarako migrazioa
  - Txokea ekonomia liberalizatuaren eta gogor kontrolatutako sistema politikoaren artean.
- Saiakerak egon ziren erregimenetik CEEri atxikitzeko.
  - Ez da lortzen demokrazia faltagatik
  - Hala ere, komertzioaren liberalizaziorako tratatu bat lortu zen
- 1973-75 gertakariak: krisiaren areagotzea.
  - Carrero Blancoren heriotza.
  - Arias Navarro izendatzen du Francok gobernuko presidente.
    - Nahiko kontinuista: Bomba bat jarri zioten leku estrategiko batean eta bera izan behar zuen Francoren ondorengoa
  - Francoren heriotza
  - Sistema ezin zen bere horretan mantendu

## **II. TRANTSIZIOA BERA**

- **Lehen fasea: (1975eko abendutik 1976ko ekainera)**
  - Juan Carlos Borboikoa tronura, Estatuburu bezala.
    - Francok izendatua
    - Oinarrizko legeak zin egin zituen.



- Arias Navarrok gobernua jarraitzen du (eta Fraga, Garrigues...).
- Demokrazia “a la española” nahi zuen → kontinuismoa.
- Pixkanaka eskubide batzuk onartzen joan ziren :Biltzeko eskubidearen legea eta Asoziazio politikorako eskubidearen legeak onartzen dira partzialki.

- **Bigarren fasea (1976ko uztaila-1978ko abendua)**

- 1975/7: Arias Navarrok dimititu → Adolfo Suarez presidente
- Movimiento Nacionaleko idazkari nagusi izandakoa:Erregimen zaharretik, demokraziara pasatzeko oinarritzko lege bat behar zen, hori zen bere planteamendua. (EPL)
- Suarez: trantsizioa egiteko “legetik legera, legearen bidez”.
  - Indarrean zeuden legeak erreformatu, haustura gabe:

Alderdia	Botoak	Ehunekoak	Diputatuak	Ehunekoak	Gizalaba/Gizaseme
UCD	6.220.899	34,74	165	47,14	7/158
PSOE/PSC	5.229.460	29,21	118	33,71	10/108
PCE/PSUC	1.655.704	9,24	20	5,71	3/17
AP	1.460.870	8,21	16	4,57	1/15
PSP/FPS	799.376	4,46	6	1,71	0/6
Pacte dem. Per Cat.	498.744	2,78	11	3,14	0/11
EAJ/PNV	286.540	1,60	8	2,28	0/8
Uni. cent. Y DC Cat.	167.554	0,93	2	0,57	0/2
Esquerra Cat.	134.953	0,75	1	0,28	0/1
Euskadiko Eskerra	58.377	0,32	1	0,28	0/1
C. ind. Aragón	37.641	0,21	1	0,28	0/1
C. ind. Castello	30.107	0,16	1	0,28	0/1
Guztira			350		21/329

- Erreforma politikorako legea gorte frankistetan onartua
  - Herritarrek berretsia
  - Oinarritzko legeen erreforma: demokraziara iristeko era legal batean
- Alderdi politikoen legeztapena, Alderdi Komunista barne.

- 1977/6 hauteskunde orokorrak: Kongresua eta Senatua
- Bigarren fase honetan kontzeptu klabe bat: “Konsensoa”: Beharrezkoa zen alderdi guztiak adostasun batera iristea aurrera egiteko.
  - 1977/10: Moncloako itunak, maila politiko eta ekonomikoan, trantsizioa egiteko

- **Erreforma politikorako legea**

- Trantsizioaren instrumento juridiko nagusia
- Formalki, oinarrizko lege bat zen (Ley Fundamental), 8°
  - Helburua: haustura bat ez irudikatzea erregimenarekin
  - Materialki: zubi-lege bat zen, sistemaz pasatzeko
- 1976/12/15: Oinarrizko legeak bezala tramitatua
  - Erreferendumean onartua beraz zilegitasuna zuen (legitimidad) lege frankista honek
- Artikulu gutxi:
  - Lehena: erregimen berriaren printzipioak.
    - Herri subiranotasuna.
    - Oinarrizko eskubide bortxaezinak = Frantziako Iraultza
    - Botere banaketa gutxieneko
  - Bigarrena: Gorte berriak (aurreko gorteetan partidu bakarra zegoen, eta orain partidu gehiago zeuden lehen onartuak ez zirenak), Kongresua eta Senatua. Lehenago partidu bakarra zegoelako
  - Hirugarrena: Prozesu konstituziogilearen oinarria. Konstituzio berri bat sortzeko lehen pausoak
    - 1978/12/6 Erreferenduma: Parte-hartzea oso baxua izan zen, nahiz eta Euskal Herrian EZ gehiago atera, oso gutxik bozkatu zuten eta beraz, estatu mailako erabakiak irabazi zuen.

- Erreferenduma: (Jende askori ez botatzeko eskatu zioten, abstenitzeko)
  - Estatua: parte-hartzea: %67 abs%33
    - Bai: %88, ezezko %7,89
    - Nafarroa: parte-hartzea: %66. Bai: 76,4
    - Gipuzkoa: parte-hartzea: %43. Bai: %64
    - Bizkaia: parte-hartzea: %42. Bai: %73
    - Araba: %59

Lurraldea	Boto-emaileak	Parte-hartzea	Bai	Ez	Zuriz	Baliogabeak
Araba	173.412	102.822	73.409	19.726	8.194	1.493
Bizkaia	874.936	371.456	266.019	78.036	20.327	7.074
Gipuzkoa	504.389	219.032	139.777	65.429	11.295	2.531
<b>Guztira</b>	<b>1.552.737</b>	693.310	<b>479.205</b>	163.191	39.816	11.098
Nafarroa	361.243	240.695	182.207	40.804	15.415	2.269

- **Marko juridikoan aldaketak:**

- Adierazpen, greba eta sindikatzeko askatasuna
- Alderdien legeztapen progresiboa
  - Edonola ere lehen hauteskundeak ez ziren berdintasunean ospatu
- Hauteskunde legea
- 1976/7: Amnistia: Alderdien artean "barkatu" ziren → horregatik esaten da ez dela errepresio larririk egon gerraostean
- 1977/5/: Don Juanek, Juan Carlosen alde eskubide dinastikoak

- **1978ko Konstituzioa:**

- Formalki: hitzaurrea, titulu preliminarra, titulu dogmatiko bat (lehen) eta beste 9 organiko (II-X). 169 artikulua. Hasierakoak 50 artikulua soilik zituzten
- Hiru oinarri:
  1. Estatu forma: "Zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko" modura eratzten dela (1.1.art.)
  2. Forma politikoa (gobernu forma): Monarkia parlamentarioa hartzen duela eredu politikoa
  3. Autonomien estatu forma (lurralde antolamendua): "Nazioa zatiezina dela aldarrikatzen du, nazioa osatzen duten nazionalitate eta eskualdeei autonomia-eskubidea onesten badie ere (2.art.)
- 168.artikuluaren arabera, hiru oinarri horietako bat aldatzea litzateke Konstituzioaren erabateko eraberritzea edo Konstituzio berri bat egitea
- 2 MG konstituzionalismo demokratiko eta sozialaren parte (Portugal, Grezia, Espainia).
- Jatorrizko konstituzioa da? Batzuk baietz diote, aurreko erregimenarekin haustura egon zelako.
  - "Lo dejo todo atado y bien atado". (Franco)
  - Haustura egon zen?
- Sinkretikoa: iturri askotatik edandakoa (Frantzia, Italia, Alemania, Escandinavia...)
- Demokrazia ordezkatzailerik (zuzenaren aurrean), alderdien bidez.
- Bermatzailea da, berme bikoitzekin.
  - Eskubide eta askatasunen berme judiziala
  - Babes elegitea auzitegi konstituzionalaren aurrean: konstituzioa babesteko
- Zurruna da: Moldatu daiteke, baina zaila da.
- Eredu ekonomikoa: Merkatu askatasunean (38 art.): Estatu liberala
- Eredu territorialean eredu "irekia"
- "Irekia" ordenamendu supranazionaleri (93 art).

- Proiektu politikoak demokratikoki garatzea, pluralismo politikoan oinarriturik (adibidez 155 art.)
- Zuzenbide estatu sozial eta demokratikoa
- Erregea: estatuaren batasun sinbolo